


Muted taldea **Abadiñoko** (Bizkaia) zazpi mutilek osatzen dute. 2003an sortu zuten taldea eta hainbat lehiaketatan parte hartu eta ongi sailkatu ondoren (**Berriz, E. Gaztea** eta **Danbaka**), 2005ean "**Sarean**" diskoa argitaratu zuen **Oihuka** diskoetxean. Muted taldeak azkar bezain fite, sendo eta mardul egin du bere musika ibilbidea. **Muted** taldeak ongi gorpuztu du bere musika planteiamendua, kantu bakoitzean bi jarrera zeharo desberdin uztartuz: gogortasuna eta melodia.

Muted taldearen bigarren diskoak "**Sena**" du izenburua eta 2007ko ekaina eta irailean zehar grabatu da Ondarroako **Santos Records** estudioan; **Mikel Santos** teknikariak grabatu, nahastu eta masterizatu du. Diskoaren produkzioa **Muted** taldearena da, **Santos**en laguntzarekin. Gonbidatu bakarra du diskoak: **Asier Saezek** (Dory) "**Bakardade nahasia**" idatzi du. **Muted** taldeak diskoetxez aldatu du eta **Baga-Bigara** pasatu dira managementa ere bulego berean dutelarik.

Muted taldeak eskaintzen digun musika metal gogorrean sailkatu beharko genuke, baina espezia andana duen jakia bihurtu dute euren estiloa, mamia bera bezain garrantzitsua dena. Testura, programazio eta sekuentzia elektronikoen metalaren alde guztiak bustitzen ditu; garrasien artean zirrikitu melodiko multzoa dago, raparen babesean gitarra indartsu eta sakonak. Oso soinua trinkoa duen makinaria baten aurrean jartzen gara **Muted** taldea entzuten dugunean. Mutur bortitza nagusitu egiten zaio mutur goxoari, baina nahasketa horren indarra da hain zuzen ere **Muted**.



1.- Muted oso talde metodikoa da. Kantuen sorrera, entsaioak, zuzenekoak, hausnarketa sakon baten ondorio dira. "Sena" bigarren diskoan aldaketak daude. Aurrekoan produktore baten laguntza izan zenuten eta denbora luzea eman prestaketetan. Orain, lan hori zuek burutu duzue. Taldekide berria duzue, bigarren abeslaria. Zer suposatzen dute Muted taldearentzat aldaketa horiek?

Metodikoa? Agian itxura hori ematen dugu taula gainean baina egia esanda Muted talde nahikoa kaotikoa da; zazpi pertsonen artean ados jartzea ez da batere erraza izaten (sorkuntza lanetan batez ere). "Sarean" diskoaren ekoizpenean Beñat Agirre izan genuen maisu eta asko ikasi genuen bere lanarekin. "Sena" onetan ekoizpena egiten ausartu gara eta esan dudana moduan lan zaila izan da, baina azkenean denon gustukoa izatea lortu dugu. Sarean diskoan falta zen haserrea lan onetan atera dugu, ikuspen pertsonalagoa alegia. Abeslari berri bat gehitu diogu Muted-eko eskemari, abeslari melodikoa hain zuzen. Arlo hori sendotzeko, sorkuntza hasi haurretik, norbait sartzeko erabakia hartu genuen. Hainbat abeslari pasatu dira lokaletik eta egia esanda Enekok egindako lanarekin oso gustura gelditu gara. Sortze prozesu amaieran sartu zen eta zegoenari egokitu behar izan zitzaion, hala ere bere nortasuna erakutsi du egindako melodia guztietan. Erabaki horrek Muted aldatuko zuela pentsatzen genuen eta hala izan da; onera izan da eta oso gustura gaude taldeak hartu duen norabidearekin.

2.- Umeen bizitza kalitatea zaindu nahi duzue, baita adopzioa bultzatu ere.

Bai, egoera larrian dauden umeei laguntzeko ekimen onekin gure aportazioa egiten dugu. "Sena" izeneko lan onetatik Muted taldeak irabazitakoa Haurralde erakundeari zuzenduta doa. Diseinua, singlea, Web-eko estetika... umeetan oinarritu dugu. Christophek seme bat izan du, eta abesti edo disko baten sorreran bezala, sorkuntza prozesua gogorra eta luzea izaten dela baina arto sentitzeko modukoa ere dela adierazten dugu. CD hau erostean umeei laguntza txiki bat emango diezu eta ziur egon biziki eskertuko dutela. Ez da asko izango baina ahal duguna egiten dugu... Animo eta mila esker erosleei, Muted eta Haurralderen partez.

3.- Musika planteamendurik ez duzue aldatu. Metala raparekin, tarte melodikoak eta teklen pop elektronikoaren zatzadak.

Bai, eskema berdin mantentzen dugu; elementu horiekin aukera infinituak dauzkagu eta gure ustez aurrera pauso bat egin dugu. Arrisku gehiago eta konplexu gutxiago, kañerua izateko orduan kañeruagoa eta lasaitasun momentuetan lasaigo. Bi mutur horiek luzatu eta gure limiteak zabaltu ditugu. Instrumentu guztietan hobekuntza handia sumatu dugu eta emaitza ezin hobea lortu dugu. ¡jaja!

Aitzol: ahotsa **Ander:** baxua **Cristophe:** programazioak **Dani:** gitarra **Edu:** gitarra **Eneko:** ahotsa **Ruben:** bateria

ritxi aizpuru (2007ko urriaren 23a)



baga-biga
produkzioak / musika idelak

telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com info@baga-biga.com
221 posta kutxa 48100 Mungia (Bizkaia)